



SARE
GERNIKA-LUMO

SARE GERNIKA-LUMOKO 2022ko IRAILA-2023ko URTARRILA BITARTEKO PLANGINTZA

0.- Testuingurua:

- Euskal preso eta iheslarien etxeratzearen egoerari dagokionez aurreko ikasturtearen amaieratik elementu batzuek bai izan dutela aldaketa: batetik, aurreko hilabeteetan nabarituriko etenaldia hurbilpenetan, berriro aktibatu dira (udan hainbat eman direlako). Ildo horretan, eta Gernika-Lumoren kasuan, Eneko Goieaskoetxearen Euskal Herriratzea eman da (Arabako Zaballako espetxean dute egun). Azkenik, eta zigor batuketan harira (eta Jabi Abaunza egoera horretan murgildua dutela jakinik) juridikoki zenbait berri azaldu dira Europako markoan (auskalo zein norabide har dezaketan, eta zein denboratan, baina jarraitu beharrekoak dira, zalantza barik).

- Etxeratzearen aldeko aktibazio sozialari dagokionez, zera: udan, jaien testuinguruan mobilizazioak egon dira norabide horretan bultzada emateko (Gernikako jaietakoa kasu) eta urriaren 8an SAREk markaturik duen mugarri erraldoia gero eta gertuago egonik, Izan Bidea-ren dinamika amaiera eta hurrengo erronkei begirako pausuak marrazten hasi dira, gutxinaka.

1.- Ondorioz:

- Aurretik ateratzen genituen zenbait ondorio, indartu baino ez dira egin: SAREk adierazi du (publikoki, uda honetan) urte amaiera honekin urrunketa politikaren amaiera aurreikusten duela. Eta hortik aurrera (esan dezakegu, urtarrileko Bilboko mobilizazioa eta gero) fase berri bati ekingo diogula (erabateko etxeratzea helburu duena).

- SARE Gernika-Lumori dagokionez, bi elementu kontuan hartzen genituen, zentzu horretan: gure kasuan erabatekoa ez, baina gaur egun urrunketa politikaren amaierara gehien hurbil daitekeen egoera bat dugu: Eneko Zaballan, Kepa Arrasaten, eta Jabi Lannemezanen. Bestalde, eta honi loturik, orain 7-8 ikasturte abiatu genuen dispertsio eta urrunketa politika amaitzearen aldeko aktibazio soziala helburu zuen Ispilue proiektua betetzat eman dezakegula (hurrengo faseari ekiteko, noski).

- Beraz, aurtengo ikasturteari dagokionez: **SAREk azpimarra egin nahi duen urrunketa politikaren amaiera gauzatzeko denborari begira erreparatu, eta urtarrila bitarteko plangintza marraztuko genuke orain** (eta bigarren etapa gisa,



SARE
GERNIKA-LUMO

urtarrila eta ikasturte amaiera bitartekoa planteatuko genuke, jada fase berriaren filosofiaren lehen urrats gisa).

- Ondorioz, **Ispilue** proiektuaren bukaera urte amaierarekin gauzatuko dugu (gabon zaharretako mobilizazioan, zehazki).

2.- Iraila eta urtarrila bitarteko egitekoak:

a) Irakurketa hau sarekideekin partekatzearen beharra dugu, eta, horretarako, espazioak sortzea dagokigu. Tradizionalki, erabili dugun espazioa aurretik, ekimen baliagarria zaigu:

1.- Ikasturteko erronkak plazaratzeko ekimena: irailak 30, arratsaldeko 19,30tan Merkurion egitea aurre-ikusi dugu (eta amaiera Pasilekuko eskaileretara eramango gaituen giza-katea litzateke, azken ostirala indartzeko).

b) Urriaren 8rako SAREk deitutako *Izan Bidea* dinamikaren bukaera ekimenak (egun osokoa, Donostian) lan bat egitea eskatzen digu, eta ikasturte hasiera honetan kokatua dago: autobusak antolatzea batetik eskualdeko gainerako sarekideekin (bat egunekoa, bestea gauekoa) eta ahalik eta gernikar gehien bertaratzea izan behar da gure helburua.

c) Sare On irratsaioa: laugarren denboraldia irailean abiatuko dugu ASTRAn kokatua dagoen Biztu Irratian, hilero behineko irratsaioa (gutxienez) eginez, ahal den neurrian.

d) Ekimen kulturala: kulturaren adiera zabalena ulerturik, eta eragileen arteko elkarlana sustatu nahian, azaroaren 2. hamabostaldian ekimen kultural bat egitea aurre-ikusten dugu: izan literatura eta kartzela ardatz duen liburu aurkezpena, dokumental emanaldia, ASTRA zinemarekin film emanaldia....

e) Gabonetako ekimena:

1.- Gernika-Lumoko udalean adierazpen instituzional bateratua egikaritzea.

2.- Postala egin eta partekatzea.

3.- Abenduaren 31ko mobilizazioa.

4.- Urtarrilaren 7ko Bilboko mobilizazioa indartzea.

f) Etxera Trail ekimenean gure ekarpena egitea (urtarrileko azken asteburuan: urtarrilak 27-29).



SARE
GERNIKA-LUMO

* Bi gai ditugu, oraindik data zehatzik, edo data iraunkorra dutenak eta gure plangintzan eragina badutenak:

- SAREk bere erronkari erantzuteko beharrezkoa duen diru-finantziarioari ekarpena egiteko kontzertua antolatzea (zein datetan kokatzea falta da).

- Azen ostiralak indartzea Etxerat elkartearekin batera. Konstante gisa ulerturik.

** Azkenik, hurrengo faseari begira, eta ondorioz otsailetik eta abuztu bitarteko plangintza marrazteko, **otsailean sarekideen tailerra** egitea aurre-ikusten dugu.

g) Gure edozein plangintzatan beti presente egongo diren osagaiak:

*** Dinamika zabalagoen parte ere bagara (Gernika Memoriaren Lekuko plataforma, ASTRA) eta beraiei loturiko egitekoak gureak egiten jarraitzen ditugu.

**** Dinamika hau guztia aurrera ateratzeko beharrezkoa den auto-finantziazioa bermatuko genuke, beti bezala.

Gernika-Lumon, 2022ko irailean